

KEREXETA'TAR J.  
"Arantibia"

# ORBELAK



13.036


L.V/65

"Liburu atsegīña esku artean daukaguna. Egilleari berez dario olerkia, eguzkiari argia iduri, biotzez ta oldozkunez gaiñezka. Irudi ta gai billa ez doa urrin; gure artekoak ditu geienak. Nire ustez, bertsotan jaso bear geunkez eusko bazterrak, Rubio ta Ors olerkariak, Kata-luiña'n, orain eun urte egin ebanez; ta ba-leiteke, aren antzera, guk be geure ele zarra, oso gaixorik daukaguna, biztu, arnastu, mardotu ta goi-maiillara jaso al izatea. Arantzibia'k damoskun guztia orrelaxe da, txinpart jori, errez, bizi, arin. Bedi orrelaxe euskal olerkia: ez goregi, ez beereggi, bai bien arteko." (*Aita Onaindia*).

"Nor ezpanaiz ere, auxe esan dezaket irakurri ditudan Arantzibia'ren olerkiez. Sail onetan maizegi gertatzen eztana, berak ikusiari eta ikasiari dago-kio eta, barrengo deiari erantzunaz, bere aoz mintzatzen zaigu, mintzo erne, ugari ta atsegīnez." (*Mitxelena'tar Luis*)

"Egia esan, zure olerkiak irakurriago eta atsegīñago iataz; alako berezitasun batez iantziak agertzen iataz, ez-oitua gure artean. Idaztiño polit bat antola daikezu oraiñarteko zeurre olerki txukun eta piñekin. Laster egingo al dozu!". (*Ibinagabeitia'tar Andima*),

"Zeure olerkiak dira "Euzko-Gogoa" aldizkarian atsegīñen irakurri oi ditudanak, eta au dala-ta, zure besteok ere, ezagutu nai nituke...". (*Aurre-Apraiz'tar Balendin "Aurraitz"*)



Euskal Biblioteca Labayru



1012085

LITERATURA / N. 1800

KEREXETA'TAR J.  
"Arantzibia"

# ORBE LAK

Aurre-itza:  
LEKUONA Apaiz Euskaltzaiñak.

NIHIL OBSTAT

*S. Sebastiani, die 13 januarii 1959*

Anicetus de Zugasti

*Censor*

OPARI:

*Nire guraso maiteen gomutaz*

IMPRIMATUR

*S. Sebastiani, 14 januarii 1959*

Dr. Josephus Sudupe

*Vic. Gen.*

DEPOSITO LEGAL S. S. N.<sup>o</sup> 104-1959

## ITZAURRE-ORDE

*Kerexeta'tar Jagoba, «Arantzibia», olerkari-olerkaria degu. Gazte. Orrekin, esana dago nolako olerkiaik egingo dituan. Gaur dan egunean Lirikan oitzen diran bezelakoak.*

*—Nolakoak, itz bitan esateko?*

*—Ez bait-da erreza, gaur dan eguneko Lirika zertan dagon esatea. Lirika oro bezela, gaurkoa ere poesi barrukoia dala esatea, ez da ezer esatea. Lirika oro da ola. Laburra dala esatea, zerbait geiago da; bañan azaleko zerbait besterik ez da ori. Bañan, izan, bai, ala da. Gaurko lirikak etzaitu luzez aspertuko, ez dizu itz eta itz-jarioz burua zoratuko. Gaurko lirika-poesi bat, ez da lore-zelai; lore bakar baizik eskurako. Lore bitxi; lore aukeratu. Bañan lore bakar. Edota sorta txiki.*

*Beste zerbait: ez dituala poesi onek gai aundiak aukeratzen (zeru ta izar ta eguzki) bere kanta-gai. Gauza utsalari ere berdin ditxekola. Tema arruntak, bikañak bezain dituala maite bere kantakizuntarako. Baratza-lorea bezain maite dituala baso-loreak. (Oroi Lizardi'ren «Otar utsa» ta «Paris'eko txoarrea»). Prantziskotarkiro. Biotza izan ortarako, biotz apala, gure Aita San Prantzisko'rena bezelakoa.*

*Zer geiago? Ez dala poesi-mueta au sobera argi izaten; illun-antzxa baizik, laño-antzxa, lanbrotsu. Naita gañera; naita illun. Egunsenti-antzera; edota illunabar-orduetako argi il antzera. Lanbro-antzean egindako margo-lana bezela. Ertz-bizi, ez; ertz-il. Esna-*

-garaiko ikuste, ez; lo-asma-garaiko amets its... Txorabio-antxa? Bai eta ez. Begiak erdi-txiki dituguneko begiratze loti obeto. Sub-consciente? Apur bat. Zerbait jator dala, orratik, ezin uka.

Dana dala, bañan ezin uka au ere: gure Arantzibia-ren poesiari, euskal-usaia dariola lau aldetatik. Gure garo-usai, gure mendi-usai; eta odoldio eze bigun ankapean... Argiz, berriz, argi xamur, goiza-barreko, intzez busti, larrosakolore, ameslari... gazte.

\* \* \*

Ba'ditugu izan, lendik ere, lirikoak Euskal-Parasoan. Guztion oroitcean dago Lizardi bat.

Arantzibia, Lizardi'ren oñatsei jarraiki asi zalarik, egunak eta urteak aurrera bezela, bera erz aurrera joan da. Ez da Lizardi bezain ornitu, aberrats, berdin —nor, izan ere, Lizardi'ren neurriko, emen ezik, kanpoan ere?— bañan bide beretik dijoalarik, bidez Lizardi baño arago aurreratu zaigu. Urteak bezela. Urtez. Artez, ez. Ez bait-da erreza.

Lizardi'k gauza bat du ezagun ta gallen: olerki asko ta asko egin ondoren, lautatik bat-edo aukera oi zuala argitarako. Besteak, txoko. Orregatik da Lizardi ain aukeratu. Aukeratu, eta era ta tonu guztietako, Lirika-lurrean. Era ta tonu guztietako. Arin, sakon. Labur, luzetxo. Azaleko, barruko. Irritsu, negarrezko. Biotz osoa eskuan, agerikizun guztiekin...

Ez da erreza, Lizardi añaiko izaten. Bañan abejondaiela, urrutitik bederen, ondotik dioazkion guztie! Arantzibia bezela.

Abejondaiola!

Lekuona, Apaiz Euskaltzaiñak

— 8 —

Emen dozuz ORBEL oneik, irakurle. Ikuñiko dozunez, ez naiz illuntasun eta ulergaitzetan ibilli, atzalgai ta irudi-asmo errazetan baño. Eta, onela bera, itz gutxi-ezagun banakaz aurkitu ba'zendiz, azken-aldean ezarri dautsut iztegi txiki bat, arein biurpena bertatik jakin daizun.

Euskeraganako maitasunak erabilli nau; bai, aldarrika diñot: argitara damodazan lerro oneik, arek sortu ta eragiñak dozuz. Edonok egin daizezan, euskal sua barrenean daroan edonoak: ain xume ta mengele dituzu. Oleriaiak ez zauz babes-gerizetan jagongo, euskaltzaletasunak baño. Au dogu mendi-gorako argi-zuzi lerdena.

Batzuek, bear bada, irri-barre isekaria egingo dauste; beste batzuek, ostera, txaloak jo. Maisearriak bere, izango dira; ta oneik esango dabez estatekoak! Zelaiko loratxoak, eguzkiak izpi leunez ikutzean, zirkin gozoa dagi; aize zakarrak jotean, burua makurtu. Orrela dagiket nik bere. Eta loratxoak bai eguzkiak bai aizea maite dauazanez, nik bere bai isekariak bai txalo-jotzalleak, bardintsu eskertuko doda.

Dana dala, ORBEL oneik zure atsegin eta jolasbide izan dakizuzala. Noizko? Aizea zinkurika ta curia marmar kanpotik, eta zu, neguko gau luzez, zeregin baga ta astitsu, sukalde epelean egon zagozannerako, batez bere. Agur.

EGILLEAK

1958, Azillak 25

— 9 —

## **IZADIKOAK**

## Nok jakin?

Esatekorik ez dot.  
Zerbait bai mendietzaz,  
Zerbait areiztietaz...  
Zer, ostera, itxasoaz?

Itandu arraintxoai,  
Ta beingoan urpetu;  
Itandu olatuai,  
Ta arkaitzetan apurtu;

Itandu bitsai bere,  
Ta berez ezereztu...  
Itxasoko sakona  
Ezin dautsut argitu.

Aren ostera doa  
Eguzkia arratsero,  
Baita illargia, bere,  
Aste ontan goizero.

Ezertxo ez diñok, ik,  
Itxasoko barne urdin?  
Ezer ba'ete-yakik  
Artizarra? Nok jakin?

## Eguna ta gaba

Artizarra agertzen danean  
Iges doa arin gau illuna;  
Ta ba-dakust laster Anboto'n  
Izar Nausiaren atz leuna.

Berenen ditzira gorrizkak  
Berantza datozi Memaiatik,  
Gau-txoriak uxatu naiez,  
Begi lo-zaleok bizturik.

Gau-garalle dogun argia  
Ba-dator oro piztutera,  
Indar bizia zabaltzera.  
Noiz arte beraren gurenda?

Arratseko izar ditzikorrak  
Iges-bidea darakutso;  
Barriz, euzkiak goi-gorena  
Ezkubaratz'i joko dautso.

Beste gau bat luraren jabe;  
Itzala gabaren zaindari.  
Ta Anboto'ko Dama zuriaz  
Neskatotxoak ameslari!

## Udabarrian

Euzki epela datorkit  
Begiok agurtzen;  
Otzez neukazan, bildurrez,  
Ezkutuan emen.

Ba-dabiltz, pozez, umeak  
Saltoka zelaian:  
Eurenak dira liliak  
Esku samurretan.

Pio-pioka txindorra  
Baratz-zugatzetan,  
Birigarroa areiztian  
Arrats-apalean.

Bedar barria ba-dator  
Zelai zabalean,  
Ta Izadi barriz jantzi da  
Zugatz-orrieta.

Guztia danez bizitza,  
Poza, askatasuna,  
Zagoz betiko gurekin  
Zorion biguna!

## Kereizetan

Idoro nai ba'naizu, billau kereizetan,  
Bertan naukazu beti, egunez ta gabez.  
Zer maite-ete arraňak itxaso-barnean?  
Areik ura benetan; nik kereiza berez.

Egunak goiz zaroaz euzkiaren argiz;  
Gabez, barriz, ez izan ezeren bildurrik:  
Illargia da goian; pa damotsu diz-diz,  
Argi dagitsu leunki zugatz-bidartetik.

Gau-txoriak bidean urtengo dautsue,  
«Maite nozu gabetan?», esanez. Zuk, baietz.  
Ta orduan, alaitsu, abes-daiketsue.  
Zetan egon isilik? Abestu zuk naiez!

Norbaiten izen-billa ba'zabiltz, laguna,  
Ikusi egikezu ortze dana izarrez:  
Izketan darabizu ditzira biguna...  
Baña iñon ez izenik: kiñuak, besteik ez!

Zer? Ba-zatoz nigana? An nozu geizpetan,  
Bakartasun-altzoam, arcizti-inguruan;  
Ez dot berorik udan, otzik be ez neguan,  
Izadi-eresiak entzunez alboan...

Kereiz bat dan artean euzko-mendietan  
An izango da, nir-nir, amai baga, sua,  
Gura dan janaria ta ur otza iturrian,  
Bake isilla edonun... Zorion osoa!

## Ego-aize

Udagoiez, Ego-aizea  
Dugu aizictan jabe:  
Giro epelez, berantz datoz  
Orbelak ardura gabe.  
  
Umeak, —bizitzaren poza!—  
Orbel-artelean olgetan.  
Nagusiak, barriz, urduri  
Irearen arduratan.

Argiaren begin doaz  
Gure mutillak txistuka;  
Idien adoregarritzat  
Burdi utsaren kirrinka.

Illargia ta Zoriona  
Basoko bidearen zain;  
Kiñarroi-ondoan irea  
Gazte areintzat gura lain.

Urrez iratzak Ego-aizez;  
Ez da faltauko «naparra»;  
Ogiaren eske ausika  
Egun erdian txakurra.

Egoiak dauan euri-miñaz  
Lañoa dator gabean;  
Gaztien iratza gorriak  
Urak busti dauz basoan.

Ego-aizeaz dan eguna  
Gurekin giro garbia;  
Agur dagiskun arratsean  
Illunaldean euria.

## Udagoi-gau batez

Begira nago  
Urril'go illargitan;  
Begira nago  
Illargi betetan.

Txir-txir egoez  
Txitxarra okanan  
Daukat laguntzat...  
Ta ametsak buruan.

Uai leiarrak,  
Diz-diz, mur-mur dagi;  
Bertan zakustaz,  
Goi-andera, Illargi.

Goiz-aize mea  
Lotan ler orleian...  
Agur dagitsut,  
Gentza, gau onetan!

Udaguen-gau:  
—Aizea lerdoian—,  
Amaika gauza,  
Barrez, dakusuzan!

Argia goian  
Odeiakaz mosuz,  
Ta lats-ertzetan  
Tantaiak gau-mamuz.

Onako baten,  
Agur dagist, lotan,  
Irri-barreak  
Nire ezpan oneitan:

Gogo nasai au  
Datza neure baitan,  
Pozaren-pozez  
Ames bigunetan...!

## Negurako-deia

Joan gura zeuke, gazte,  
Urkiola-barreneko  
Gure basetxe zurira?  
Nire ametsak arako!

Ez dot edurren bildurrik,  
Negu gogorra ba'dai be:  
Kortan, egurrak zenbat lain  
Erretako eten gabe.

Ainbat janari kutxetan:  
Arto, gari, baba, zer-nai...  
Iru beien esne ona,  
Ogei ardiren eun gaztai.

Olloak, bere, ba-doguz;  
Ollaskoak kukurruka;  
Gaztañak ganbaran; «Zuri»,  
Danom atezain, ausika.

Bazkalondoan intxaurrek  
Ezti gozoaz batean;  
Ta barrua berotzeko  
Txakoliña mai-gañean.

Egingo doguz —oba ez!—  
Txirristak edur-gañean,  
Gizonkil bildurgarriak  
Eta «gurutzak» edurtzan.

Ala negua igarorik,  
Barritz Memari-altzora;  
Udabarriz egokien  
«Elizburu»-etxetxora.

Ta orain, nirekin joan  
Nai ete-zeuke neguan  
Urkiola-barrenera?  
Baietza dozu mosuan!

## Edurtzan

Edurrez dagoz mendiak,  
—Ortzea dagon oztin!—;  
Edurrez dagoz mendiak  
Gorbea baizen bardin.

Illargia zeruan  
Eguzkiaz egun on;  
Eta aizea, nun-ete?  
A pozik Anboto'n!

Anboto'ko Damea'gaz  
Kontu-kontari biak.  
Zer dagie barriketan  
Utsezko andra ariñak?

Aldape'ko bidetik  
Txakur baltz bat doa;  
Beraren zaunka otsez  
Bitzu da basoa.

Erbi batek ostu dautso,  
—Erbi aren usaña!—,  
Aren gogo zintzoa ta  
Biotz prestu-bilkaña.

Etxeko egalean  
Txindor bat ikarez;  
Euzkitan egonarren  
Egon ezin otzez.

Edurrez dagoz mendiak,  
—Ortzea dagon oztin!—;  
Edurrez dagoz mendiak  
Gorbea baizen bardin.

## Ipar-aize

—«Ainbatek itz dagitsugu  
Udako arratsetan,  
Beroaz egon eziñik  
Larri, gagozanean.

Zatoz laster, Ipar-aize,  
Zure mosuz baturik;  
Zerbait otzitu gagizuz  
Bero au aldendurik.»—

Baña negu-biotzean  
Beste bat da leloa:  
«Zoaz arin, Ipar-aize,  
Gugaz daigun beroa.

Zuk, atea izten dozuz,  
Erio dirudizu  
Azurrok dardaraka utziz...  
Sua bearko biztu.»

Umeak, barriz, diñoe:  
Bideak zuriz doguz  
Gizonkillak egiteko;  
Zugatzak, barriz, mamuz.

«Zagoz gugaz, Ipar-aize,  
Zurekin da edurra,  
Ikusi arte ortzean  
Euzkiaren muturra.»

Edurra ta Ipar-aizea  
Iges doaz mendira;  
«Zagoz or geldi, Ipar-aize,  
Udararte begira.»

# **MAITEZKOAK**

## **Zure agurra**

Ikusten nozunean  
Agur dagistazu;  
Ez zaudazala maite  
Ondotxo dakizu.

Nik ikararik bere ez  
Begi urdin onei,  
Neugandu ez dalezan  
Zure biok larrei.

Ez ba, nik ez dot gura  
Niretzat biotzik;  
Zer esango bestela  
Amatxo<sup>ik</sup> zerutik?

Zure gogoa nai dot  
Guztiz irabazi,  
Eskeñi dagitsadan  
Zeruko Amari.

.....

Ikusten nozunean  
Agur dagistazu;  
Aurrerantzean, bere,  
Agur egistazu!

## Urki-artean

Zu ba-zabiltz barriro, be,  
Urki-artean beti lez:  
Zetan eta zer billatzen?  
Urki-artean arratsez...

Esaidazu: Giz-abestiz,  
Ala zugasti-eresiz?

Zindoak dira pagoak,  
—Nirea ba'liz indar a!—;  
Ta zu lakoa nun-ete?  
Gogoa dozun zindoa!

Ta zuk jarrai zeureari;  
Zadiz urki-maitagarri!

Esaidazu: Zer dakazu  
Urki-artean, keizpetan,  
Oin meok oldei-gañean,  
Orren legunki berbetan?

Lizardi'ren olerki-min  
Ete-dozu, begi-urdin?

Goiz-oztargi zurizkari  
Ozkorri-apo dario;  
Zure ago eztzi orrek,  
Gazte, zertxo ete-diño?

Ea, bada, esaidazu:  
Zer, baña zer galdu dozu?

Urki-artean luzaro,  
Zer da idoro nai dozuna?  
Ba-dakit: Bakartasuna...  
—Ez! Galdu dan maitasuna!

## Agur-izarrak

Goizaldez, gau illuna,  
Gau illuna azkenetan;  
Argiaren atz leuna  
Ba-dator osertzean.

Goian, izarrak agur,  
Kiñuka, agur dagiste;  
Bean, ler-adarpean,  
Bik maiteki itz dagie.

Bata ule gorritzkea,  
Kereiz gorriz ezpanak,  
Irri-barrez matrallak,  
Artizar bi begiak...

Onen ondoan, norbait...  
Aingeru lez garbia,  
Itxas-aizez arnasa,  
Goizak baizen eztia.

Bertan biak soil-soilik,  
—Eureik, lerrak ta izarrak—,  
Izketan amai baga  
Zorion-maitasunak.

Gero, alkarri barrez,  
Banandu dira agurrez...  
Irutan baietz, ezetz,  
Ta milla agur biotzez.

Nok esan legikean  
Arein bien agurra?  
Maitaleak bakarrik  
Arein agur gartsua.

Goian izarrak agur;  
Beko izar biak agur.  
«Nik bai-dut maiteiño bat»...  
Gazte bi areikan ur.

## Zure ondoan

Ez da bearrekoa  
Miñez itz egitea.  
Ez dozu esanenik?  
Elduko yatzu unea.

Ta bitartean, gazte,  
Zagoz nire ondoan;  
Itzaren pare dogu  
Ba'zaukadaz aldean.

Nagon zuri begira,  
Ta niri begira zu;  
Zure irri-barre eztia  
Itzik onena dozu.

Alkar, urean egon...  
Bizitzan zoriontsu!  
Betiko gaztaroa,  
Osasuna eta zu!

## Zure atsekabea

—«Nora zoaz, zoragarrizko  
Aingeru urdin, oin-arin, ule-jori?  
Bete dozu arratserako  
Irudipenez zure buru ori?

Lurraizea bide luzean  
Zure atzean joanaz geldiro,  
Soñuz darabizu ondoan,  
Eta zugatz-adarretan biziro.

Lenago ba-zan, ba, barrea  
Zure ezpan orrein jabe nagusia!  
Oñazez zure biotz aula,  
Zeu zaranoi orain guztiz ausia.

Zer dala-ta orren atsege,  
Egaztiño orron, baso-zugatzetan?  
Begi orreik zur darakuste  
Oñaze itunoi biotz-barrenean.»—

—«Esan ezin; au egi latza!  
Nire gazte maitearen barririk  
—A zan egiz nire ametsa—  
Ez dot izan, ez; ez daukat iñundik!

Amaika aldiz olatu urdiñek  
Belkaiztu eben gorputz zut-lirain a!  
Nun da nire biotz-gogoak  
Nai daben izar dizitiratsuena?

Donostia'n izango ote-da?  
Oi nik ba'neuko ludi ontan ala...!  
Agur, maite, begi-ederra!  
Noiz arte agur? Au nire tamala!»—

## Erantzuna

—«Ene maite! Esaidazu  
Zenbat maite diran...  
—Au esan eziña!—, begi  
Urdin bi, gogoan.

Eta zelan ez ainbeste  
Begi orlegiak?  
Neuretzat beintzat, neuretzat,  
Bat dira guztiak...»—

—«Ez! Eurakanuntz daroez  
Maitasun-laztanak,  
Begirakune-patxoak,  
Baratzeko lorak...»—

Bera zan begi-urdiña!  
Eta ez ekian  
Arela, bere, zegaitik!  
Ta zoriontsu zan!

## Maitatzalle-artean

—«Agur, Asier, nora oa?  
—«Ni? Arrats ontan, lertxundira.  
An yoat Xabier laguna  
Aspaldion miri begira.»—

—«Agur, Begoña, nora oa?  
—«Ni? Lertxundiko baratzera,  
Amaia nire lagunari  
Ipuin gozoak esatera.»—

Neroni ba-dirautsat orain:  
Nora noa ametsez beterik?  
Nora... «Nondik» natorren dakit:  
Lertxundiko gerizpetatik!

## Ezpaia

Neugana zentozan,  
Zetan ez nekian,  
Zetan ez nekian  
Baña ba-zentozan.

Zu izketan nirekin  
Ta nik ezin egin,  
—Biotza taupaka—,  
Nik erantzun ezin.

Zure itz gorrizka areik,  
Maitez apainduaak,  
Nire biotzean  
Dardai me, zorrotzak.

Kukua mutua,  
Mutua neguan;  
Ni be bardin mintzan  
An, zure aurrean.

Zer ziraustan, gazte?  
Zu izketan, ni isilik.  
Geuk dakigu dana,  
Geuk ta zugatz areik.

Ta aldendu zintzazan,  
Aldendu agurka;  
Ta urrindu ondoren,  
Ni pozez barreka.

Zu niri begira,  
—Biotzaren poza!—,  
Ni zuri begira...  
—Ego-aize otsa!—.

## Begi batzui

Zure begi ederrok  
Zertxobait esan gura dauste;  
Zure begi ederrok,  
Baltzizkok, ia galdu naue.

Ispillu garbiotan  
Argiro dakust eguzkia;  
Ta orrexeik dakarste,  
Egunez bere, ozkarbia.

Orain, iñoi ez-eta,  
Oraintxe, lenengoz, nazabe;  
Orain, iñoi ez-eta,  
Nire buru illun au dargiste.

Agoa isilik dozu,  
Isilik; baña... begi orreik?  
Agur dagiste edonun:  
Zure aurrean ta bakarrik.

Zure lako izarño bi,  
Nok eroan daikez aldean?  
Zure lako izarño bi,  
Nok eroan leikez ondoan?

## Maitasun-eske

Beti lore  
Ta dotore,  
Neska lirain,  
Beti apain.

Orrillari ostu dautsazuz  
Zure ogei urte gordiñok;  
Eta milla izarren ikaraz  
Darabizuz begi urdiñok.

Beti lore  
Ta dotore,  
Neska lirain,  
Beti apain.

Illuna igeska doakizu  
Zure arpegiko ditziraz;  
Lañoa zerurantz igo da  
Ezpan orreitako arnasaz.

Beti lore  
Ta dotore,  
Neska lirain,  
Beti apain.

Nire ondotik igaroaz  
Zure oñok geldi bekidaz:  
Nire biotzeko oñaze au  
Zeuk osatuko dozu itz bataz.

Beti lore  
Ta dotore,  
Neska lirain,  
Beti apain.

## BIOZKADAK

## Bizitza-aroak

—«Oi, ni gazte naitenean bai,  
Anditxoago nadiñean!»—,  
Ziraustan, zazpi urteko ume  
Okertxoa zintzazanean.

«Orduan, gure mendi oro  
Negurtuko dodaz, makilla  
Eskuan dodala: Memaia,  
Udalaitz eta beste milla,

Ogei urte daidazanean!...»  
—«Ba-yatortzuz ogei urteok,  
Gazte, mutil aundi egiña:  
Bizkortu egikezuz oñok!»—.

—«Oi, nik ba'neukez zazpi urte!  
Arratsaldetan Albitzu'ra  
Joango nintzake, gaztai ta  
Ogia aldean dodazala.»—

Gaztarro betetan ta ezin!  
Zer gero buru ori ule  
Zurituz jantzi daitenean,  
Ta oin orreik indarrik bagé?

Bekokia tximur, begi itun,  
Gaztarora begira... Ene!  
Nor izan leikean barriro  
Len izan gintzazanez gazte!

Aurtzaro, gaztarro, zartzaro:  
Gure bizitzako aroak.  
Betiko laztandu gaizala  
Geró, gure Goiko Jaun onak!

## Iguria'ko errotan

Iguria'ko errotan

Amairu sorgin, gabean;

Iguria'ko errotan

Dantza-dantzari kantetan.

Areik bai gorputz ariñak,

Arpegi argi, oin bizkor!

«Klin, klon, klin ta klan soñuaz

Ekiok ik, bolu, gogor.»

Aldameneko lerroian

Mozolo zarren kurrikkak;

Ta Goikoetxe-egalean

Ontzearen erantzunak.

Argi-diztirak aidean,

Egaka suzko anderak,

Anboto'tik berantz, gorantz...

Errota ondoko dantzak!

Anboto'ko Anderea

Batzarre-buru nagusi;

Bolu-ondoko zelaian

Sorgin oztea nabasi.

Sorgin-gaba don, itxuraz:

Illargi bete; ozkarli;

Izarrik diz-diz; aizea

Lotan... Au gau zoragarri!

Iguria'ko errotan

Eundaka sorgin, gabean;

Iguria'ko errotan

Dantza-dantzari kantetan!

## Zorion-billa

Memaria'ko zidorretatik

Ituna-andera igesika doa;

Urrezko uztaitz ta iru azkonez

Zoruna, bere arerioa.

Ortzean, diz-diz, goizeko izarra

Ta, illez, adar biko illargi zarra.

Alako baten, txistu min batek

Iratzartu dau goizeko isilla:

Azkon zorrotz bat arin-aringa

Urten da, egaz, norbaiten billa.

Ituna'k ostu, bere otseintzat,

Zorionaren seme gazte bat!

Azkon-indarrez lurra jo bear

Arte igarraren adar zimelak.

Barriz, bigarren txistua egaz;

Berea askatu nai dau Zoruna'k.

Ik bai larriak, Zorion-seme!

Ire ama dok Itun-garalle!

Ba-doatso orain irugarrena:

—Dardai orregaz kontuz, Ituna!—;

Azkenengoak, zorion aundiz,

Birrindu dautso arpegi illuna.

Ama-semeak, pozez, laztanka!

Orain, abestu Zorion-kanta!

## Aspaldikoa

Beti alan, pozik baga,  
Bizitza zan ituna!  
Barre-irririk ez mosuan,  
Urrun soñu biguna;

Entzun eziñik mendian  
Orbel-otsa oñetan,  
Neroni pa emon nairik  
Udagoi-arratsetan...

Amaika aldiz nai izan neban  
Askatasun-bidea,  
Txakur mustur-baltz arekin  
Bakean bizitea!

Bañá abots batek ziraustan:  
«Alan nai zeuke bizi?  
Kontuz! Loren artean, ba,  
Arantzak dira ikusi.»

Negar, itxaron, gura izan  
Zorunezko geroa;  
Axe zan luzaro mire  
Amaibako leloa.

## Gaztearen negarra

### I

Lerdoi onen barneak, oñik loitu-ete?  
Iñoz ezautu bako barru ezkutuak,  
Izarren izpietaz, zer jakingo-ete?  
Ler gorenak abarxkaz, Zubillak sendoak;

Gero, gorago, lurtak; baña, zer dala-ta?  
Oi! Goi-goitik etorren, astiro, ur-negarra,  
—Ur gutxiaren ala noizpait agertuta—,  
Eta bertatik joian, ixil, ur leiarra.

Artzain-eguzkik jo dau, munka, Ezkubaratz,  
Arrats-aize biguna marmaraka dago,  
Ta Intxorta, margo gorri, txingarren antz...  
Agur, ikuski eder, iñun ez zu lako!

Eta baso-barruan, illuntasun utsa;  
Artzain-txistu bizia sakan-zidorretan,  
Bere ogei artzarrok nunai arran-otsa,  
Eta artzañora ausika bedartza-langean.

Oi txistu, artzain-txistu, mendi-dei sarkorra!  
Zure zarataz, dar-dar, tantainen adarrak;  
Arrotzaren barruan, sarrara, bildurra,  
Euskaldun-biotzetan geroko itxaroak.

## II

Gorantz doa gaztea. Nok euki a geldi?  
Bere odol sutsua mendi-billa dabil:  
Udalaitz dakus bertan, baita Anboto aundi,  
Bekoki illun. —Gazteak, izardia pil-pil.—

Eun bide barri daukaz bere begirean.  
Bai lur ontan mendiak! Bideak, geiago.  
Len gorantz, orain berantz, atsegin-egotan,  
Aurrera beti, mutil, beti urrunago!

Ez dau orain buruan lerdoiko barne a,  
Barne isilla, bakarra, zorion-betea;  
Urrundu dau burutik bazter gozatsu a:  
Intxorta'ra eldu da... Ene, bere Intxorta!

—Mendi goi zalea naiz... —diño biotz-minduz—,  
Bertontxe nengoan, bai, egon nintzan noizpait...  
Nerau lurraz bat-einda... goi ta beak, mamuz...  
Lagunen eriotza burura datorkit...—

## III

Lengo gazte alaia, laño biurtu da;  
Bere begiai negar-tanta darioe.  
Otoi zuri bat gorantz, zerurantz igo da,  
Ta aingeruek Urtzi'ri eskeñi dautsoe.

Gaztea berantz doa, —otak zidorretan—,  
Ta eresi samur bat galdu ~~ortzean~~:  
«Iruten ari nuzu kilua gerrian,  
Ardura dudalarik nigarra begin...»

## Memaria'n

Memaria'ko zelaian  
Atsegina dago;  
Memaria'ko zelaian  
Zoriona bego!

Memaria'ko txoria,  
Txindortxu polita:  
Zetako zagoz atsege?  
Zein atsekabea?

Ta zetan zabiltz zugatzez,  
Txioz, goi ta bean?  
Biotz-zatia dakuszu  
Orrien artean?

Ai papargorri gorritxo:  
Iñoz naigaberik  
Ezautu dozu barnean?  
Iñoz ez, gaur ezik.

Memaria'ko zelaian  
Atsegina dago;  
Memaria'ko zelaian  
Atsedena bego!

## Eitzari naigabetuari

Basora zoaz, eitzari,  
Orbelak dozuz bidean;  
Basora zoaz, eitzari,  
Belak gura aña zelaian.

Gertu eukizu uztai ori,  
Begira ondo dardaia.  
Ez dagoz zuri itxaroten:  
Urrindu yatzuz mendira!

Eguzkiaren izpiak  
Baltzizkak dira lerdoian;  
Goiz-aizearen irriak  
Lotan diardu basoan.

Mendira zoaz, eitzari,  
Aitz-koskortxoak bidean;  
Mendira zoaz, eitzari,  
Belak edonon mendian.

Iges-iges goiz ariña:  
Jarrita zagoz, eitzari,  
—Bedartzearen ezea!—;  
Zelan zagoz, ba, ameslari?

Non ete-dozuz goizeko  
Egazti luma-baltzizkak?  
Oianeko lerdoi zear  
Dabiltz biziro sei belak.

Ta zure uztai ta dardaia?  
Ausi dozuz bat-batean,  
—Txorién txorro-txioak!—,  
Basoko zugatz-artean!

Etxera zoaz, eitzari,  
Ezer ez dozu eizatu;  
Etxera zoaz, eitzari,  
Belak, be, ez dozuz uxatu!

## Zelaietakoa

Eta suagada a baizen ariñik  
Ez zan iñoi izan txisturik!  
Neuganuntz ekarren bere danba illa  
Aize bigunak sortzaldetik.

Argiñeta-esian,  
Aize zabaletan,  
Bedartza orlegian,  
Begiak ortzean...

Bere arintza burtzoragarria  
Tximistari ostu naiean;  
Biotzak dar-dar... ta Txistu alaia  
Bizkor ta arin zelai ezean;

Gero an, mendiaz bat,  
Eresi argia  
Galtzen zan, bizi nairik...  
Suagada itzela!

Zelai zabalaren kolkoan, alai,  
Milla gazte ebiltzan urduri.  
Non ete-ziran euren biotz-zañak?  
Pozez ziran dantza-dantzari!

Nortzuk ete-zirean  
Begi baltz-zaleak?  
Aizeak eutsoezan  
Ardura zorrotzak!

Eta suagada a baizen ariñik,  
An entzun etc-zan iñoi txisturik?

---

Oar.—Gudaldian jazo zanaz gomutatzen naiz lerro oneitan: erromeri baten, txistua ta danboliña joten zirala ta gazte taldea dantzan, suagadaka asi ziran guda-oñeko beste aldekoak, ez toki aretara, askozaz urru-nago baño; gazteen buru-gañetik joizan suagada areik, eta txistu bi entzuten ziran: gure Txistua ta suagadena.

## Jolasetan

Baratza lerez apain  
Nire etxe ondoan;  
Arantza'ren jolasak  
Baratz-lora artean!

Lora guztiak daukaz  
Berari begira;  
Ta berak mun-dagitse  
Gogoko ba'dira.

Loretan lo-azlea  
Maitetsuen dauko;  
Aren kolore-miñez  
Arduratan dago.

Zeruko izar bi dira  
Bere begitxoak;  
Ortze zabala utzirik  
Lurrera jausiak.

Ez dagoz oztíñean  
Bakarrik izarrak:  
Baratze arek, bere,  
Ba-dauz izarñoak.

Lorategian lora,  
Lora politena  
Bere gogoa, nonbait,  
Izarrez dagona.

Baratza lerez apain  
Nire etxe ondoan;  
Arantza'ren jolasak  
Baratz-lora artean!

## Naiak

Jakin dozuz iñoz nire naiak?  
Entzuizuz orain apurñoak.

Mendi-usaña biotzez artzea,  
Artizar-mosuz begiok leuntzea,  
Gero izarretan ikusi dagidan  
Zure edurrezko arpegi garbia.

Gizadi-izketak beti loitzen dabe  
Barruan dagon gogo orban bagea;  
Oñok urrindu kale-bidetatik,  
Ez izateko gizadi-zalea.

Bakartasun-egoz, mendietara;  
Bekokiaz bat ortzeko lañoa;  
Onela daukat nigandik urrago  
Gure Egille dan Aita ta Jainkoa.

Gogo-lorez batu  
Mendien bake dana;  
Gero, beraz bildu  
Zure mosu biguna.

Pago-ametsez biztu  
Bion su illeziña,  
Baratzan sartu gure  
Maitasun gordiña...

Esan dot, baña... ezin:  
Ez dot maitasunaz ametsik!  
Amak ostu eustan, ba,  
Biotza, lendik, txikitatik...

Ezer ez dakit,  
Ta dana daukat:  
Jainkoa'gaz naiz.  
Urtzi'gan ni bat!

### Ez neban jakin

Bakarrik, oñak arin,  
Eguzkia arpegián,  
Izar bi begietan,  
Alaitasunez joian.

Batzutan gorantz, Oiz'era,  
Bestetan berantz begira...

Nok esango eustan, nok,  
Gazte alai a nor zan?  
Aurreko pagoari  
Itandu neutsan, landan.

Txistik bagarik zubilla;  
Beretzat eban isilla.

Euzki-diztirak ziran  
Bere urezko uleak;  
Bedardi ta landetan  
Izarño bi begiak.

Ta zer zan bere gogoa?  
Ezin ikusi barrua!

Soñurik bigunena  
Eroian ago mean;  
Tipitapa, larrapast  
Egiten bedarrean.

Batzutan gorantz, Oiz'era,  
Bestetan berantz begira...

Nor zan, nor bakarti a?  
Jakin ba'neu jakin nik...  
Betiko joan yatan  
Ezagutu bagarik!

Aren atzean txoriak  
Eta eguzki-laztanak!

### Legunki...

Suburuko keatsaz pagausoak arin;  
Nun-ete olako indar ke orren usañak?  
Suburuko kedarra mendiko zugatz-gain;  
Bertara doaz bizkor nire gogapeñak!

Abizen-ikurdia diz-diz oñetxean;  
Axe dago edonun etsaien aurrean,  
Axe dardaiz josita biotz-begietan.  
Etsaia: Zelan dozuz begiok lurrean?

Asarrez daizunean zuk arpegi ori,  
Zein ete-da benetan asarrezko indarra?  
Ta alan be, leunki dakustsudaz begi orreik,  
Biozki... Ba'zendiz orrela betikorra...!

## A zan, a...

Bioi laztanak emoten,  
Maitasun-laztanak,  
Aize biguna, txistuka  
Itzartzen pagoak.

Itxiaz eta zabalduz,  
Bion begi leunak  
Ezpan gorriai begira,  
Zaintzalle zintzoak.

Zugatz-orriak  
Geuganuntz pillo-pilloka,  
Aize-laguntzaz  
Bilin-bolanketan bera.

Ta bitartean,  
Zidorrez-zidor mendarantz,  
Jauzi-jauzika;  
Baña arin nekatu gorantz!

Bat-batean sasian  
Okilla zirika;  
Artu geban arria...  
Beingoan igeska.

Gero, an, zugatz-goian  
Zozoa kantari,  
Burua tente, begira  
Ortzeako odeiari.

Ta arela, pozik,  
Bedar ezezko mendian,  
Zenbat gogapen  
Gure buruen barnean?

Lats-murmur otsa  
Entzunik, alai, baketan...  
A zan poz-poza  
Ezpan, begi, biotzetan!

## Gabeko bederatzietan

Nire etxeko leioan,  
Gabeko isilletan,  
Aize bigun-arteau,  
Biotza ameseta!

Ezer ez da entzuten;  
Bildotsen be erlatza  
Da bakarrik gabeko  
Eresi-lorratza.

Ozkarbian izarrak,  
Mendi-goian zugatzak.

Illargi betearen  
Zidarrezko ditziz  
Aitz-gañaak zuriz dagoz,  
Oro jantzi zuriz.

Laño mea menditik  
Goi-gorantz igo da;  
Mozoloa torretik  
Mendirantz joan da.

Ez dot bear lagunik  
Gogartzeko bakarrik.

Bakardiak artu nau  
Altzoan isilka,  
Eta isillak gorde nau  
Ostuka-ostuka.

Onela nagoala,  
Din, din, din, din, din,  
Eta bardin beste iru,  
Kanpaiak din, din, din.

Beratzi otsak entzun:  
Txapela kendu daigun.

Ozkarbitan kanpaina  
Belarriba dator;  
Egin daidan otoia  
Jainko'a'ri bizkor!

## Katuarí

Ai katu arin, «Pitxirrin» polit!  
Bizkortu lau ankatxuok,  
Txakurra dok, ba, eure aurrean;  
Garbitu arin begiok.

Purrustadea «puf-puf» aguro  
Ta urrindu adi beingoan  
Elai apalen lastertasunaz,  
Txakurra dok, ba, ostean.

Eta gero zer? Ai katu, katu...  
Aurrean dozak zugatzak!  
Zetako orduan ire anketan  
Atzapar luze-zorrotzak?

Barrien-barrez kardantxilloak  
Txiru-liruka asperturik!  
Ago-zabalik yagek txakurra,  
Ta i buztan arroz bildurrik?

Ai katu nagi, «Pitxirrin» oker!  
Non daukak sagu usaintsua?  
Pozik yabik a dantza-dantzari,  
Ba-yakik non dan zuloa.

Ez dok ikusten begi-aurrean  
Txoria soñuz sasian?  
Ai katu, katu: Nun, zetan ago?  
Oi! Lotan ago baratzan!

## Ardiari

Oi, ardi, ardi txiki!  
Orreik dozak jauzkak,  
Ez olan otsak.  
Nun dozak, ba, agiñak?  
Orreik bai ortzak!

Begi-aurrean ba'akit  
Jauzi ordun arin,  
Ez egon lotan  
Atzazkal oneitan,  
Iges, goiz, urrin!

Zer gero bestetara?  
Norbait gutxiago  
Ludion; norbait...  
Guztiok pozago  
Ozkage nonbait.

Oa orain, arditxo,  
Geratu lurrean,  
Nigandik urrin  
Bein beingoz... Utikan!,  
Baketan nadin.

## Ekaitza itxasoan

Zugatzak ikaraz,  
Zinkurika aizea,  
Itxasoa artega,  
Oztotsez ortzea.

Nor egon bertan  
Bere ur-gañetan?

Oi, neure laguna,  
Lagun maitiena  
An bakarrik dagon  
Gaisoa, landerra!

Bakarrik bera  
Ta ontziskea.

An egon eziña,  
Ango mendi-uñak!  
Azkenez, indarge...  
Tximisten argiak!

Ez dau lagunik,  
Bakar-bakarrik...

Zugatzak ikaraz,  
Zinkurika aizea,  
Itxasoa artega,  
Oztotsez ortzea.

Eldu da, anaia,  
Zure amaia.

—«Itxaso saierre,  
Aize-baltz, aize etsai!  
Zer gertatu yako  
Nire lagunari?—

Larri ebillen  
Ura banatzen...»—

Ta uñak, alkar joten,  
Bein be ez ain asarre  
Arkaitzen artean,  
Didarka diñoste:

—«Geuk daukau bean,  
Itxas-barnean!»—

## Mendiko eriotza

I

Mendira doa Teresatxu,  
Berakin pozik Arantzazu.  
Ortzea dagon oztin,  
Itxaso guztia urdin!

—«Zer dagizue gatzaro ortan  
Zuek zabiltzen bidietan?»—  
—«Usain gozoz dagon mendira  
Lora zuri billa;  
Zagoz zu etxeан begira.»—

II

Ekaitza dator oideitan;  
Asi da mendi batzueta.  
Zain, urduri, larri, etxeан!  
Lañoak estaldurik,  
Galdu zarie biok.  
Odei bustien urez  
Busti bediz begiok!  
Zerua, egun erdian,  
Garbia zan eguzkiaz:  
Arratsez, neskak mendian,  
Il dira biak ekaitzaz.

Zoaze, elaiok, bien billa!  
Alperrik: kanpaien ots illa!!  
Negar begie begiok,  
Negar, samiñez, guztiok!

## Pulla'ko iturria

Goizean-goizean  
Pulla'ra noa;  
Goizean-goizean  
Pulla-iturrira.

Iturri-murmurra  
Lau bazterretan;  
Negartsu jolasez,  
Zir-zir, uñetan.

Pulla maitetsua!  
Pulla zer danik  
Beroak ez daki  
Ango bidetik.

Iturri-agoa  
Oldei-arteana,  
Ta euzki-diztirak  
Bere urrunean...

Udaren beginan  
Bertako urak  
Laztandu daizala  
Ezpan gorrizkak!

Goizean-goizean  
Pulla'ra noa;  
Goizean-goizean  
Pulla-iturrira.

## Gabonzar-gabea

### Goizetako abeslariari

Kantari zerutar,  
Gure elizako abesle!  
Zuretzat, mutiko,  
Nadin neu oroi-egille!

Zure abots leunoi  
Biziro, garbi, datorkit;  
Orril'go goizetan  
Bardin zozoa dabilkit.

Nun nagoala uste  
Zure abotsoi entzunez?  
Esateko nago  
Zeruzko lurrean, pozez!

Zure abots meoi  
Sartu yatan biotzera;  
Zeuri entzun guraz  
Nabil goizetik goizerá.

Aurrerantzean be,  
Jarrai eliz-urretxindor;  
Abots bigun ori  
Arin-aringa goiz betor!

Zugatz bat gutxiagoz  
Etxeko baratza;  
Urrezko arnaria  
Arekin galdu da.

Eun ortzeren balioz  
Joan yat urtea;  
Zuzenago izan ba'liz  
Nire bizikera!

Zer diñoan jakin nai  
Urtearen Jaunak.  
Sar nadin barrenean,  
Itz-begist gogoak!

Au dot ezpasia nigaz!  
Bildur naz izan dan  
Aurten bere, negute.  
Ikusi dagidan:

Baietz, ezetz, au, ori,  
Eta a: onenbeste;  
Onela ta orrela...  
Emen urtebete.

Nagon lotsez isilik!  
Sar nadin ogean.  
Izan nadin obea  
Urtebarri ontan.

## Arantzazu, Arantzazu...!

«Zuk zer duzu, Arantzazu...»

Zuk zer dozun? Neuk ba'neki...  
Zure ondoan sei egun  
Igaro dodaz baketan;  
Nok leikeazan irureun!

Eundaka bidar dakutsut  
Zure arpegi maitea;  
Orrek naroa ikustera  
Zuk dagistazun barrea.

Baña Zu isilik zaukadaz,  
Arantzazu'ko Amatxo.  
Naiko ete-da barrea  
Nik emoteko eun patxo?

Ba-dakit maite nozuna  
Berbarik egin ezarren;  
Zure maitari-artean  
Izan nakizula aurrenen.

Nire gaztaro ederra  
Apurka-apurka ba-doa;

Aurrerantzean, Zeuretzat  
Nire maitasun beroa.

.....

Arantzazu'tik ba-noa,  
Ta agur dagitsut, Ama, agur;  
Arantzake, Zure oroiz,  
Bizi nadin Zugandik ur.

Zeruko ate-aurrea,  
Arantzazu, Arantzazu!  
Il naitenean, baketan,  
Zagoz ondoan, Ama, Zu!

## BILLABIDE

### IZADIKOAK

	Orri
Nok jakin? ... ... ...	13
Eguna ta gaba... ...	14
Udabarrian... ...	15
Kereizetan ... ...	16
Ego-aize... ...	17
Udagoi-gau batez... ...	18
Negurako deia... ...	20
Edurtzan ... ...	22
Ipar-aize ... ...	23

### MAITEZKOAK

Zure agurra ... ...	27
Urki-artean... ...	28
Agur-izarrak ... ...	30
Zure ondoan ... ...	32
Zure atsekabea... ...	33
Erantzuna... ...	34
Maitatzalle-artean... ...	35
Ezpaia ... ...	36
Begi batzui ... ...	37
Maitasun-eske ... ...	38

### BIOZKADAK

	Orri
Bizitza-aroak ... ...	41
Iguria'ko errotan ... ...	42
Zorion-billa. ... ...	43
Aspaldikoa ... ...	44
Gaztearen negarra.. ...	45
Memaria'n ... ...	47
Eitzari naigabetuari ...	48
Zelaietako... ...	50
Jolasetan ... ...	52
Naiak ... ...	53
Ez neban jakin ... ...	55
Legunki... ...	57
A zan, a ... ...	58
Gabeko bederatzietan ..	60
Katuari ... ...	62
Ardiari ... ...	63
Ekaitza itxasoan ... ...	64
Mendiko eriotza ... ...	66
Pulla'ko iturria ... ...	67
Goizetako abeslariari...	68
Gabonzar-gabean ... ...	69
Arantzazu, Arantzazu! ..	70

## ERABILITAKO ITZ GUTXI EZAGUN BATZUK ETA TOKI-IZENAK

*abarxka*: maleza menuda.

*abizen*: apellido.

*Albitzu*: Memoria'ko basoa, lerrez; len zelai; bertako larranbillioak (manzanillas) naien gebazan.

*Anboto*: aitza, Arratzola'n (B).

*apalean, arrats-apalean*: al caer de la tarde.

*ardi*: oveja; pulga. Ardiari: a la pulga.

*areio*: arerio'ren laburpena, etsai: enemigo.

*arnari*: fruto. Ez diñot ondo sortua danik.

*aro*: edad; aurtzaro, gaztaro, zartzaro (niñez...).

*Argiñeta*: Elorrio'ko esia (cerca, vallado): bertan antzinako illobi entzutetsuak.

*artizar*: lucero (izarra).

*artzain-eguzki*: sol del atardecer.

*artzañora*: ardi-txakurra (mastín).

*artzarrak*: ardi zarrak.

*atsegabeik*: atsekaberik.

*atz*: rastro, señal, asomo, huella.

*ausi-egin*: 1) zaunka egin; ausika: ladrando; 2) romper-se.

*baga, bage, gabe*: sin.

*bako*: bagako (sin).

*baltzaran, baltzeran*: moreno-a.

*barik*: bagarik (sin).

*barne, barru*: interior.


*be*: bere, ere: 1) también; 2) balido: bildotsen be erlantzta (el ronco balido de los corderos); 3) bajo, en contraposición a goi (alto).

*bedardi*: herbazal.

*begian, ardiaren begian*: al amanecer.

*begirean, bere begirean:* delante de su mirada.  
*bekaiztu:* envidiar.  
*beratzí:* bederatzí.  
*besteik:* besterik.  
*bilin-bolaketan:* tambaleando.  
*bolu, errota:* molino.  
*dagie:* lo hacen.  
*dakust:* lo veo.  
*dakutsudaz:* se los veo a V.  
*dakutsut:* se lo veo a V.  
*dakusuzan:* los ve V., que.  
*damost:* me lo da.  
*damotsaz:* se los da.  
*damotsu:* se lo da a V.  
*danba:* entampido, estallido.  
*Damea, Anboto'ko Damea:* la Dama o Señora de Anboto.  
*darakust:* me lo enseña.  
*darakustaz:* me los enseña.  
*darakuste:* me lo muestran.  
*darakutso:* se lo enseña.  
*dardai:* flecha, dardo.  
*dargi:* ilumina.  
*dargiste:* me lo iluminan.  
*dario:* mana.  
*datza:* etzanda dago: yace él.  
*dazaut:* lo conozco.  
*diardu:* está ocupado en.  
*dotore:* elegante.  
*egalean:* en el alero.  
*eiten:* egiten.  
*eiztari:* cazador.  
*Elizburu:* Elorrio'ko Eliz-osteko tokia, kalea ta etxea.  
*entzuidazu:* entzun egidazu.  
*entzuizuz:* entzun egizuz.  
*erdu:* zatоз (venga V).  
*eresi:* canción.  
*Erio:* Muerte.  
*esaidazu:* esan egidazu.  
*esi:* cerca, vallado.  
*eze:* verde, fresco, húmedo.  
*Ezkubaratz:* aitza Mañaria'n (B.).  
*gaiso:* pobre, cuitado.  
*ganbaran:* en el camarote.  
*garalle:* triunfador, vencedor.  
*gaztarro:* juventud (época).

*geban:* genduan.  
*gentza:* bake.  
*geiso:* enfermo.  
*geisoik:* geisorik.  
*geizpetan:* gerizpetan, kerizpetan (a la sombra).  
*giz-abesti:* canción humana.  
*gizonkillak:* muñecos.  
*Goikoetxe:* Iguarauzoko gorengo basetxea, Elorrio'n.  
*goizabarrean:* en el crepúsculo de la mañana.  
*goizkorri:* arrebol matinal.  
*Gorbea:* mendia Zeanuri'n (B.).  
*gurenda:* triunfo.  
*Iguria:* Elorrio'ko auzoa.  
*ikurdi, mazmarro:* escudo de armas, heráldica.  
*Intxorta:* mendia Elorrio'n (B.).  
*ira, ire:* helecho.  
*isekari:* burlón. Iribarre isekaria: sonrisa burlona.  
*itzartzen:* iratzartzen, esnatzen.  
*itzal:* sombra, oscuridad.  
*itzel:* respetable, de temor, de miedo.  
*Izadi:* Naturaleza.  
*Izar-nausi:* eguzki.  
*jauzi-jauzika:* a saltos, dando saltos.  
*jauzkak:* saltos.  
*jo:* 1) pegar; 2) ir, dirigirse a; 3) pulsar, tocar un instrumento musical; 4) sonar la hora.  
*keatsa:* keak dauan usaña.  
*keizpetan:* kerizpetan.  
*Kinarroi:* Memoria'ko basoa.  
*kirrinka, kurrinka:* chirrido.  
*lañoik:* lañorik.  
*lako:* bezelako (como).  
*lange:* desocupado, inculto (no cultivado).  
*larrei:* larregi (demasiado). Berez, "lar" bakarrik esanda naiko da.  
*lats:* arroyuelo.  
*leiari:* cristalino-a.  
*leio:* ventana.  
*lelo:* cantinela.  
*ler, lerra:* pino.  
*lerdoi:* pinar.  
*lertxundi:* alameda.  
*lez:* legez, bezela (como, comparativo).  
*leun:* legún (suave).  
*lo-azole:* amapola.



"ITXAROPENA ARGITALDARIA" irar-lantegian  
argitara emona, Lourdes'en Andra Mari  
agertu zanetik eun urte betetzean.

Z A R A U T Z - 1958

ARGITARATZEKO ASMOTAN  
EUSKALERRIA. (Itz lauz). -  
Abizenen oñetxeak; aitorseme-  
tasun-agiriak (pruebas de hi-  
dalguia), non eta noiz; abize-  
nen esanai edo biurpena; abi-  
zen bakotzaren ikurdi edo  
mazmarroa (escudo de ar-  
mas)...

BITARGI. (Olerki eginba-  
riak).